

Liburuak

Joxean Agirre

Literaktum izeneko jardunaldiek irauten duten bitartean Donostiako autobusetan liburu bat irakurriz doazen bidaiariei opari bat emango zaiela entzun nuenetik izututa nabil, ni autobusean edo trenean liburu bat eskuetan duela doan bidaiari estralurtar horietakoa bainaiz. Baita autoan ere. Izan ere, norabait noanean liburu bat eraman ohi dut aldean badaezpada, istripu bat tarteko edo beste edozein arazo medio geldirik egotea egokitzen bazait egonaldia arinduko didalakoan. Gehienetan hiruzpatalu liburu hartu ohi ditut, eguneko orduaren arabera ezberdinak irakurtzea gustatzen zaidalako, goizean bermuta, bazkaritan ardoa eta arratsaldean

whiskia behar duten alkoholikoen antzera.

Orain, ikastoletan arbel elektronikoak eta ikas-material digitalak erabiltzen direla entzuten dudanean, «akabo!», pentsatu ohi dut, «Gutenbergena itzaltzen ari den galaxia bat da». Badakit tabletak edo ordenagailuak konektatu egiten duela, ez dakit zeri, baina sare bateko partaide egiten zaitu, eta liburuak, kontrakoa, deskonektatu egiten zaitu, deskonexio horri esker zure baitara sartzen bazara ere. Mende bat eraman du nobela garaikideak (Joyce, Proust, Svevo...) gizakiaren barrenera sartu eta bertan zeuden ezkutukiak argitzen. Baina hori bukatu da, iraungitzera doan espezie bateko kide sentitzen naiz.

Horregatik, oso arraroa egiten zait beti Durangoko Azokara joan eta areto ikusgarri hori liburuz eta jendez betea ikustea. Nik Durangon dudan sentipen bertsua izango du kalamu erretzaile batek urtean behin Irungo Ficobako azokara joaten denean.

Garbi dago gurea ere mendekotasuna dela. Beharbada egunen batean gaindituko dut arazoa, baina badakit mendekotasuna gainditu dutenen tristura bertsua izango dudala irribarrean, eta, antsia moduko bat begiradan, badakigulako hartu dugun erabakia mesedegarri izango dela osasunarentzat, baina ez gara haatik zoriontsuago, zerbaiten faltan biziko baikara, barru-barruan zerbait anputatu baligute bezala. •

Errailetako mina, azalera

Nekane
Zinkunegi
Barandiaran

Bortxaketa bati emango zaion tratamendu juridikoak, instituzionalak zein hedabideetakoak balio behar du. Baina bortxatzaileei bortxatzeko asmoa burutik kentzeko, ez biktimei salaketa jartzea okeragoa dela pentsarazteko. Egunotan Iruñean izaten ari den epaiketa izenik ez duen muturrera heldu baita.

Eta sartu gara gu ere zurrunbilan, landu dugu gaia geure hedabideetan. Teorian, beste batzuek hedatu dituzten astakerien ondoan, guk ikuspegi interesgarria eskaini dugu, eta salatu ditugu

han eta hemen ikusitakoak. Ohartu gabe, akaso, salatzerako orduan merezi ez duten oihartzuna ere eman diegula. Kasu konketuari begira itsutzeak indarkeriaren dimentsioaz ahaztera garamatzala dirudi. Izan ere, sanferminetan bost lagunek –horietako bat Guardia Zibila eta beste bat militar ohia omen– neska gazte bat bortxatu, bideoz grabatu eta Whatsappen aldarrikatu izanarekin beste edozer alderatzean, txikikeria irudituko zaigu. Eta bortxatzaileak zigorgabe mantentzen dituen sistemak komeni zaion tokira mugatuko du gure arreta.

Horregatik da interesgarriagoa erraiak azaleratzeko deia. Horregatik salatzen dut, bere gizontasuna baliatuz, bilkura batean isilarazi nauena, eta gauza bera egingo dut Whatsappez mehatxu mezua igorri eta parranda izorratu didalako etxera bidali nauenarekin. Ustez, nik ez daukadan eta berari esleitu zaion bosterea baliatu duelako ni zapaltzeko, eta hori delako funtsean emakumeonganako indarkeria. Hedabideetan bolo-bolo eta morbo handiz saltzen duguna, berriaz, funts horren errealitate areagotua soilik da, tamalez. •